



Osakidetza

BILBAO - BASURTO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BILBAO - BASURTO

Informazio-gida ingresatutako pazienteentzat

Basurtuko
Unibertsitate
Ospitalea
2019ko edizioa



Lehenengo eta behin, espero dugu ahalik eta ondoen egotea gure artean. Gure helburua da zuk tratamendu eta zainketarik onenak jasotzea, horrela zure etxera laster eta guztiz errekueratuta itzultzeko.


Gure xedea:

Pertsonen osasun-premiei erantzutea eta osasuna sustatzea, eta hori segurtasunez, modu integralean, eraginkortasunez eta kalitatez egitea. Betiere, ikuspegi sanitario publiko batetik, eta konpromisoa hartuta profesional bikainak prestatzeko eta ikerkuntza eta ezagutza sustatzeko.

Zuri laguntzeko gaude eta, horregatik, galdetu zure zalantzak eta nahi duzun guztia unitate edo zerbitzuko profesionalei.

Espero dugu gida hau baliagarria izatea bai zuretzat bai senideentzat, bertan informazio interesgarria aurkituko baituzue.

Zure egonaldia ahalik eta atseginena izango delakoan, gure agur beroa bidaltzen dizugu.



Tabakorik gabeko gunea

Área sin tabaco

OSPITALE OSOAN

BAITA LORATEGI ETA KALEETAN ERE



EN TODO EL HOSPITAL


INCLUIDOS JARDINES Y CALLES

INFORMAZIO OROKORRA



Marka honen bidez identifikatu ahal izango dituzu Ospitaleko profesional euskaldunak.

Profesionalen identifikazioa




PROFESIONAL MEDIKOAK



ERIZAINZAKO PROFESIONALAK




ERIZAINZAKO LAGUNTAILEAK



ZELADOREAK



MANTENTZE-LANETAKO PROFESIONALAK



ADMINISTRAZIOKO PROFESIONALAK



TEKNIKARI ESPEZIALISTAK



GARBIKETAKO PROFESIONALAK

Informazio eta Harrera Zerbitzua

Prest gaituzu zure zalantzak argitzeko, edo horretarako norengana jo esateko.

- Telefonoa: **94 400 60 54**
- Kokalekua: **Kanpo Kontsultetako pabiloiko hall nagusia.**
- Ordutegia: - **7:30etik 20:45era**
(astelehenetik ostiralera)

- Telefonoa: **94 400 61 67**
- Kokalekua: **Harrera-eraikina, Ospitaleko sarrera nagusiaren ondoan.**
- Ordutegia: **Jaiegun, larunbat eta igandeetan: 9:00 - 13:00, 16:00 - 19:00**



Paziente eta Erabiltzaileak Atenditzeko Zerbitzua

Unitate honetan, zure kexak edo erreklamazioak egin ahal izango dituzu, eta osasun-asistentziaren inguruan dituzun zalantzak argituko dizkizute.

- Telefonoa: **94 400 60 99**
- Kokalekua: **Kanpo Kontsultetako pabiloiko hall nagusia.**
- Orduategia: **9:00etatik 14:30era** (asteburu eta jaiegunetan izan ezik).
- Helbide elektronikoa:
sapu.osibilbaobasurto@osakidetza.eus

Gizarte-langileak

Unitate honetako profesionalek orientazioa eta laguntza eskainiko dizute ospitalizazioaldian izan dezakezun edozein arazo sozial konpontzeko.

- Telefonoa: **94 400 60 58**
- Kokalekua: **Kanpo Kontsultetako pabiloiko hall nagusia.**
- Orduategia: **8:00etatik 15:00etara** (asteburu eta jaiegunetan izan ezik).
- Helbide elektronikoa:
asistenciasocial.basurto@osakidetza.eus



OSPITALIZAZIOA

Ospitalizazio Unitatea

Segurtasun-arrazoiak direla-eta, identifikazioko eskumuturreko bat jarriko dizugu (zure datu pertsonalak ditu), eta ospitalean zauden bitartean eraman beharke duzu. Galdu edo apurtuz gero, jakinarazi, mesedez, erizaintzako profesionali, beste bat jartzeko.

Behin ingresatuta, erizaintzako profesionalak ahoz eta idatziz informatuko zaituzte Unitatearen funtzionamenduaz eta bertako ordutegiez; eta, bestetik, esango dizute zein diren arreta emango dizun asistentzia-taldeko arduradunak.

Etxean medikazioen bat hartzen ari bazara, komenigarria da horren berri ematea, eta medikuaren agindua ekartzea, baldin baduzu.

Alergia badiozu medikazio edo materialen bati (latexa, zilarra, artilea, xaboiak, etab.), jakinarazi unitateko erizaintzako profesionali.

Ospitalean zauden bitartean, medikuak preskribatuko dizkizu zure tratamendurako behar dituzun medikazio guztiak. Ez duzu beste medikaziorik hartu behar. Zalantzarik izanez gero, galdetu erizaintzako profesionali.

- Lehenagoko txosten medikorik edo beste proba batzuen ingurukorik baduzu, ekarri.
- Dokumentu edo ziurtagiriren bat behar baduzu, eskatu arreta ematen dizuten zerbitzuko idazkaritzan.

Informazio medikoa

- Bisita medikoa astelehenetik ostiralera egiten da. Zure asistentziaz arduratzen den medikuak aldizka informatuko zaitu gaixotasunaren eboluzioaz. Galde iezaiozu nahi duzun guztia.
- Zure konfidentzialtasun-eskubidea bermatzeko, medikuak informazioa emango die bakarrik hurbileneko senideei edo zeuk hautatutako pertsonari, unitatean horretarako zehaztutako ordutegian eta tokian.
- Irizpide orokor gisa, telefonoz ez da informaziorik emango.
- Interbentzio kirurgikoa egin behar badizute, kirurgialariak, amaitu ostean, informazioa emango die zure senideei.



OSPITALIZAZIOA

Erizaintzako zainketak

- Erizaintzako profesionalak eguneko 24 orduetan atendituko zaituzte. Lan-txanda bakoitzean, erizain batek izango du zure zainketen zuzeneko ardura.
- Ospitalizazioko unitate guztietan, erizaintzako gainbegirale bat dago (8:00etatik 15:00etara, lan-egunetan). Berarengana jo dezakezu nahi duzunean.
- Ez ekarri baliozko objekturik. Ekartzen badituzu, hobe duzu familiari entregatzea, Ospitaleak ez baitu hartzen horien gaineko erantzukizunik.
- Behar duzun oheko arropa emango dizugu, eta behar den maiztasunarekin aldatuko dugu.
- Hauek ekarri behar dituzu ingresatzerakoan: pijama, bata, zapatilak, hortz-eskuila, eta behar dituzun bestelako objektu pertsonalak.
- Zure gelan armairu bat izango duzu objektu pertsonalak gordetzeko.
- Zerbaiten beharra baduzu, sakatu oheburuan dagoen txirrina. Mesedez, ez erabili arrazoirik gabe, zeren eta, hala eginez gero, eragozpenak sortu baitaitezke beste pazienteei eman beharreko zainketei dagokienez.

- Nahiz eta zu ondo egon, gaixo larri bat izan dezakezu alboan. **Errespetatu ezazu!**



Elikadura

- Dieta desberdinak daude, eta medikuak zehaztuko du zein den egokia zure beharrezan araberako. Beraz, Ospitalean ematen dizkizuten elikagaiak hartu behar dituzu, ez besterik. Egiozu kontsulta medikuari beti.

Orduetgia:

Gosaria: 8:30h
Bazkaria: 13:00h
Merienda: 16:00h
Afarria: 20:00h

- Elikadura faktore garrantzitsua da gaixotasun askoren tratamenduan. Medikuak uste badu dieta normala hartu ahal duzula, Ospitaleak hautatzeko aukera ematen dizu: egunero plater batzuen artetik aukeratu ahal izango duzu menua.

Paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak

Osakidetzak badu paziente eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharren gaineko karta bat. Karta hori eskura duzu Ospitalizazio Unitatean. Eskatu, nahi izanez gero.

Txikienezat

Umeei arreta berezia eman nahi zaie, eta, horregatik, hainbat jarduera eskaintzen zaizkie, egonaldia ahalik eta atsegina izan dadin. **IKASGELA** bat dugu, eta bertan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko bi irakaslek txikienei laguntzen diete ikasketa-erritmoa ez galtzen.

Gainera, Ospitaleak **Zibergela** bat du, eskola-ordutegiaren ostean irekitzen dena. Bertan, ordenagailuekin jolastu eta ikas dezakete; eta, bestetik, konektatu daitezke beste ospitale-zentroetako hurrekin. Toki hori, bestalde, aisialdirako espazioa denez, gazteenek haurrentzako liburutegia dute, jostailuak... Ekipamendu hori erabil dezakete, gainera, pazienteak bisitatzen duten eskola-adineko senide eta lagunek.



Ospitale-alta

Alta medikoa

- Atenditzen zaituen medikuak erabakiko du noiz eman alta. Esan ostean, nahiko denbora izango duzu senideei abisatu eta behar duzun guztia prestatzeko.
- Alta-txostena emango dizute; eta, bertan izango dituzu etxean egin beharreko tratamenduaren eta zainketen gaineko jarraibideak.
- Ohea libre egon behar da 13:00ak baino lehen, asistentzia sanitarioa behar duen beste paziente bat atenditu ahal izateko. Izan ere, gela garbitu eta prestatu behar dugu. Alta beranduago ematen badizute, utzi gela ahalik eta lasterren mesedez.

Borondatezko alta

- Arrazoiren bategatik Ospitalea utzi nahi baduzu medikuaren iritzia kontra, borondatezko altako dokumentua sinatu beharko duzu. Hori eginez gero, zeure gain geratzen dira etor litezkeen ondorioak. Osasun-garraiorik behar izanez gero, Ospitalea ez da horretaz arduratuko.



BIZIKIDETZA-ARAUAK

Bisita-ordutegia: Ospitalizazio orokorra

8:00etatik 21:00etara

- Bisita luzeegiak edo maizegi egiten direnak nekagarriak izan daitezke zuretzat, eta, bestetik, eragozpenak sortu ahal dizkiete arreta ematen dizuten profesionali. Zu eta gainerako pazienteak behar bezala egon zaitezten, komeni da aldi berean bi bisitari baino gehiago ez egotea.

Bisita-ordutegia: Unitate bereziak

- Unitate batzuek (Bizkortzea, Koronarioen Unitatea, Jaioberrien Unitatea eta Psikiatria) ordutegi desberdina dute, eta horien berri emango dizute.

Erosotasuna eta lasaitasuna garrantzitsuak dira pazienteak ondo errekueratzeko.

- Eskerrik asko zure isiltasunagatik.
- Errespetatu bisita-txandak.
- Ahopean hitz egin; itxita eduki gelako atea; ez egin trabarik pasilloetan; eta, utzi butaka behar bezala 7:00etatik aurrera.
- Burkoak, oheko arropa... pazientearentzat dira, ez senide edo bisitariarentzat.

- Bisita medikoa egin behar denean, edo paziente bati erizaintzako zainketak eman behar zaizkionean, joan zaitez gelatik, mesedez.
- Tresneria medikoa duten pazienteen eremuetan, itzalita eduki behar dira telefono mugikorrak.
- Erabili bisitarienezako igogailuak bakarrik.
- Emergentzia-kasuan, kontaktatu Ospitaleko profesionalekin; eta, egin kasu eurei.
- Ospitaleak konpromiso sendoa du ingurumenarekin, eta ingurumen-zurtagiriak ditu. Ospitalean zauden bitartean, gomendatzen dizugu modu arduratsuan erabiltzea eskura jartzen zaizkizun baliabideak (ura eta argia, adibidez), eta birziklatze-puntuak erabiltzea.

Umeen bisitak, eta etxeko animaliak Ospitalera ekartzea.

Gomendatzen da 14 urtetik beherako umeak Ospitalera bisitan ez etortzea, eurei eta pazienteei errazago eragin ahal dietelako gaixotasunek, ahulagoak dira-eta.

Halaber, gogorarazten da debekatuta dagoela Ospitalera etxeko animaliak ekartzea, itsu-txakurrak izan ezik.

BESTELAKO INFORMAZIOAK

Erljio-zerbitzuak

Katolikoak

Kapera bat dago Iturrizar eraikineko sotoan.

Meza-orduak:

Astelehenetik ostiralera: 12:00 h.

Igande eta jaiegunetan: 12:00 h.

Larunbat eta jai-bezperetan: 18:00 h.

Beste erlijioak.

Erljio-arreta zure solairuko erizaintzako unitatean eskatu behar duzu.

Arreta beste hizkuntza batzuetan

Ospitaleak telefono bidezko interpretazio-sistema du, eta eguneko 24 orduetan dago operatibo.

Telebista eta telefonoa

Gelan telebista bat duzu, txartelez funtzionatzen duena. Txartelak Ospitaleko pabiloi bakoitzean dituzu salgai. Ez ahaztu errespetatu behar dela beti gainerako pazienteen atsedena.

Arazoren bat izanez gero telebistarekin, telefonoz deitu dezakezu horretarako den zenbakira: gelan jarritako informazio-orri batean dago zenbaki hori, erabilera-jarraibideekin batera.

Zurekin komunikatzeko, senideek operadore automatikoko telefonora deitu dezakete: **94 400 99 66**

Deitzeko ordutegia: **12:00etatik 21:00etara**

Pabiloia eta ohe-zenbakia zein diren badakizu, marka ezazu pabiloiaren kodea (ikusi zerrendan) eta, jarraian, ohe-zenbakia.

Pabiloia	Kodea
Allende	1
Ampuero	2
Gandarias	3
Iturrizar	4
Jado	5
Revilla	7
San Pelayo	8
Aztarain	9

Adibidez, kontaktuan jarri nahi baduzu Iturrizar pabiloiko 122 ohearekin: operadoreak esaten dizunean luzapena markatzeko, 4 markatu beharko duzu (pabiloi-kodea), eta, jarraian, 122 (ohe-kodea).



BESTELAKO INFORMAZIOAK

Kafetegia eta prentsa

Ospitalean bi kafetegi dituzte senide eta bisitariek.

- **Kanpo Kontsultetako kafetegia:** sotoan.
Orduetgia: 7:30etik 22:30era.

- **Larrialdietako kafetegia:**
Larrialdien ondoko eraikinean. Orduetgia:
8:00etatik 17:00etara.

- **Prentsa-kioskoa:** Kanpo Kontsultetako Pabiloian, kafetegiaren ondoan. Orduetgia:
7:30etik 20:00etara.

Ile-apaindegia

Ospitalean ile-apaindegi zerbitzu pribatua dago paziente eta senideentzat. Ingresatuta bazaude eta zerbitzu hori nahi baduzu, euren lokalean edo zure gelan atendituko zaituzte.

- **Telefonoa: 94 400 62 03**

- **Kokalekua:** Kanpo Kontsultetako sotoa (kafetegiaren ondoan).

- **Orduetgia:**
Astelehenetik ostiralera: 7:30 - 18:00
Larunbatetan: 9:00 - 12:00

Garraioa (ikusi planoaren erdiko orrietan)

Ospitalea modu guztiz egokian dago komunikatuta: Bilbobuseko autobus-lineak (ikusi zerrenda), Ospitaleko taxi-geralekua, RENFEko aldiriko geltokia, FEVEko geltokia (Basurtu – Ospitalea), Metro Bilbao (San Mames), eta tranbia-geralekua. A-8 autopistatik, Bilbo Mendebaldea / Jesusen Bihotza irteera hartu behar da.


Bilbobuseko lineak

- San Inazio – Zorrotza 18. linea
- Uribarri – Basurtu/Termibus 26. linea
- Otxarkoaga – Basurtu/Termibus .. 38. linea
- Santutxu – Basurtu/Ospitalea 48. linea
- Miribilla – Ospitalea 57. linea
- Mintegitxueta – Atxuri 58. linea
- Basurtu/Termibus – Arabella 62. linea
- Altamira – Termibus 80. linea
- Zazpi Landa – Atxuri 85. linea
- Kastrexana – Indautxu 88. linea

Taxiak.

Taxi-geraleku bat dago Gobernu Pabiloiko ate nagusiaren aurrean.

Senideak zure bila ibilgailu partikularrean datozenean, mesedez, utzi kotxea toki egokian, emergentzia-egoeran izan daitezkeen beste pertsona batzuei kalterik ez egiteko; eta, joan Ospitaletik ahalik eta azkarren.



1 Allende

Ospitalizazioa: Kardiologia,
Bihotzeko Kir. eta Kir. Baskularra
Laborategi Baskularra
Koronarioen Unitatea
Probak: Kardiologia eta Kir. Baskularra
Elektrofisiologia
Hemodinamika

2 Ampuero

Ospitalizazioa: Neurologia eta Neurokirurgia
Iktus Unitatea
Kontsultak: Neurologia eta Errehabilitazioa
2a AEA Unitatea
Arnas Errehabilitazioa
Bihotz Errehabilitazioa
Elektroterapia Unitatea
Gimnasioa
2b Eskanerra - OTA
Ekografia

3 Anatomia Patologikoa

4 Areilza dk. Bloke Kirurgikoa

Operazio-gelak
ABU
IGKU
BZBU
Bihotz Bizkortzea
Bizkortzea
Nutrizio Unitatea
Dokumentazioa
Esterilizazioa

5 Aztarain

Ospitalizazioa:
Onkologia
Hematologia
Alergologia
Erreumatologia
Endokrinologia
Kontsultak:
Onkologia
Hematologia
Minaren Unitatea
Eguneko Ospitale Medikoa

6 Arrupe (Kanpo Kontsultak)


Informazioa
Harrera Orokorra
Gizarte Laguntza
PEAZ (Pazientearen Arreta)
Kontsultak
Odol-ateratzeak
Jaiotza-erregistroa
Artxiboak
Kafetegia, prentsa, ile-apaindegia eta kutxazainak

7 Escuza

Mantentzea

Unibertsitate Ospitalea

Unibertsitariario Basurto



9	Gobernua
	Gerentzia
	Integrazio Asistentzialeko Zuzendaritza
9a	Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza
	Informátika
	Érosketak
	Ekitaldi Aretoa (Gorbeia Aretoa)
	Zuzendaritza Medikoa
	Erizaintzako Zuzendaritza
9b	Personaleko Zuzendaritza
	Kalitate Unitatea
	Komunikazio Unitatea
	Euskera
	Telefonogunea
9c	Erradiodiagnostikoa / X izpiak
	Medikuntza Nuklearra
9d	Angiografoa
10	Gurtubay
	Laboratorios
	Unidad Transfusional
11	Iturrizar
	PARTOS
	Unidad Neonatal
	Hospitalización Ginecología y Obstetricia
	Hospitalización C. Maxilofacial y C. Plástica
	Hospitalización ORI y Oftalmología
	CAPILLA

12	Jado
	Ospitalizazioa: Kirurgia Orokorra, Urologia eta Nefrologia
12a	Egonaldi Laburreko Unitatea
	Espetxe Unitatea
	Irakaskuntza eta Ikerkuntzako Unitatea
12b	Kontsultak: Nefrologia
	Dialisia
13	Makua
	LARRIALDI OROKORRAK
	Operazio-gelak
	PEDIATRIAKO LARRIALDIAK
	ABU
	Étxeko Ospitalizazioa
14	Revilla
	Ospitalizazioa: Aparatu Digestiboa, Pneumologia, Gaix. Infekziosak eta Barn Makua
	Kontsultak: Aparatu Digestiboa
	Endoskopiak
	Pneumologiako miaketak
15	San José
	Bularreko Unitate Erradiologikoa
16	San Pelayo
	Pediatria: ospitalizazioa, eguneko ospitalea eta kontsultak
	Pediatriako Bitarteko Zainketak
17	San Vicente
	Erradioterapia: kontsultak eta tratamendua

BESTELAKO INFORMAZIOAK

Kutzazain automatikoak

Zure erosotasunari begira, Ospitalean eskura duzu kutxazain automatiko bat, Kanpo Kontsultetara sartzeko hallean (BBK).

Konfidentzialtasuna

Zure datuak, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera tratatuko dira. Zuk ematen dituzun datuak jaso eta Osakidetza/Euskal osasun zerbitzuko fitxategietan sartuko dira, asistentzia sanitarioa behar bezala kudeatu eta emateko.

Informazio gehiago izateko, jo gure web-orrira:

www.osakidetza.euskadi.eus/r85-



ghobib00/es